



Tolosako Samaniego ikastetxe berriko lehen harria jarri dute

ERAIKINA ▶ Eraikin jasagarria eta bioklimatikoa izango da eta Lehen Hezkuntza hartuko du

EPEA ▶ 2006ko abendurako bukatuta egotea espero dute arduradunek eta agintariek ▶ 2



Tontxu Campos Hezkuntza sailburua palarekin eta udal agintariak atzo Samaniego ikastetxe berriko lehen harria jartzen. LEIRE MONTES

ASTEASU ▶

Patxi Urizar eta Aintzane Argais izan dira irabazle kros igoeran Santamañako jaietan

Xabino Roteta eta Pello Izagirre bikotea izan da irabazle mus txapelketan; datorren asteburuan, ekitaldi ugari ▶ 4



Krosa. XABIER UBEDA/AIURRI

IBARRA-TOLOSA ▶

Bi herrien informazioa esku plano berean

Tolosaldea Tourrek argitaratu du turistentzat ▶ 3

ALEGIA ▶

Heriotz zigorra berretsi diote Larrañagari

Bi aukera ditu orain Filipinetan zigortu duten gazteak ▶ 5

BELAUNTZA ▶

Auzitegiak atzera bota du helegitea

Basasororen eskubideak ez direla urratu dio ▶ 6

LEITZA ▶

Perurenak irabazi du txapela ▶ 7

HEZKUNTZA ▶

LEIRE MONTES

Hasi dira Samaniego ikastetxe-ko eraikin berriaren lanak. Atzo goizean, hain zuzen ere, jarri zuten lehen harria. Besteak beste, Tontxu Campos Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua, Jokin Bildarratz Tolosako alkatea, Onintza Lasa Hezkuntza eta Euskara zinegotzia Tolosako Udalean eta Samaniegoko Hezkuntza Komunitateko hainbat eta hainbat lagun elkartu zituen ekitaldian. «Proiektuaren garrantzia» eta «denon inplikazioa, ilusioa eta parte-hartzea» azpimarratu zituzten guztiek, pozarren.

Begoña Alijostes Samaniego ordezkariaren esanetan, «emandako pauso hau oso garrantzitsua da ikastetxe hezkuntza komunitatearentzat. Prozesu luzea izan da, baina pixkanaka-pixkanaka gure ametsa egia bihurtzen ari da». Eusko Jaurlaritzaren, Udalen, CEIDAREN, Hezkuntza Komunitatearen eta, «oro har, denon inplikazioa eskertu» zuten irakasleak. «Ikastetxearen filosofiarekin bat» datorren eraikin berri horrek erantzukizunak eskatuko dituela gogoratu zuen, era berean: «Horiei ahal den hobekien erantzutea izango da orain gure erronka, han eta hemen era honetako arkitekturai ateak zabalduz».

Onintza Lasa Hezkuntza zinegotzarentzat ere «egun pozgarria» izan zen atzokoa. Prozesu luzean «guztien erabateko inplikazioa» azpimarratu zituen: «Fisikoki, gaur jarriko dugu eraikinaren lehen harria. Baina denon lanaren emaitza da gaurkoa, hainbat eta hainbat bilera zein elkarriketen ondorioa». Teorian dagoena praktikara pasatzearen garrantziaz ere mintzatu zen. «Tolosaldeko umeak beste sentsibiltate batekin heziko dira hemen».

«Samaniego ikastetxeak tematikak izan dira oso. Baina horrela lortzen dira gauzak», esan zuen, umoretsu, Jokin Bildarratz alkatea. Hark ere «guztien elkarlana» goraipatu

Jarri dute Samaniegoko eraikin berriaren lehen harria

Eraikin jasagarria eta bioklimatikoa izango da, eta ikastetxearen Lehen Hezkuntza hartuko du; 2006ko abendurako amaituta egotea espero dute

zuen. Aurrekoen lana ere gogoratu nahi izan zuen ekitaldian: «Ez da ikusten gure aurretik zeudenek egindako lana, eta zinez eskertu egin behar dugu. Aurreko udal gobernuak, esaterako, benetan sinisten zuen proiektu honetan, eta lurrak erosteko, besteak beste, lan handia egin zuen. Berdin hezkuntza komunitatean egon diren lagun asko eta asko...». Tolosaldeko ikasleek «leku zoragarria, ikastetxe zoragarria» izango dutela gaineratu zuen.

Kargua hartu zuenetik lehenetarik agerraldi publikoa zen atzokoa Tontxu Campos Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarentzat. «Ohorea» eta «atsegina» hitzez definitu zuen unea. Batetik, «jende guztiaren inplikazioa nabaria» delako; bestetik, Juan Labaien eraikinaren arkitektoa herrikoa izatea oso garrantzitsua delako; eta «hezkuntza komunitatearen ekarpenak eta eskaerak aintzakotzat hartzen direla ikusi delako». Irakaslegoaren bizitasuna goretsi zuen, era berean. Ordezkatzen duen sailaren zeregin asko eraikinetan irudikatzen diren arren, sailburuarentzat jendea da gakoa: «Dena den, azpiegiturak beharrezkoak dira, eta horrelakoak badira, zer esanik ez». Sailetik egiten den lehen eraikin bioklimatikoa izango da Samaniegokoa, eta «ezagarrri horiek aurrerantzean ere kontuan hartzeko konpromisoa» hartu zuen Camposek.

Eraikin jasagarri eta bioklimatikoa Samaniegoko Lehen Hezkuntza hartuko du. Lanak hasita, 2006ko abendurako eraikina amaituta egotea espero dute guztiek.



Samaniegoko bi ikasle, lehen harria jartzen; atzoko egunkariak, txanpon batzuk eta testutxo bat sartu zituzten lurpean. LEIRE MONTES



Ezkeretik hasita, Tontxu Campos, Jokin Bildarratz, Begoña Alijostes eta Onintza Lasa, atzoko agerraldian. LEIRE MONTES



Eraikinaren maketa. HITZA

Eraikina bera, ikasgai

Eraikuntza jasagarriaren eta bioklimatikoaren irizpi-deak jasotzen ditu Samaniegoko eraikuntza berriak. Ikastetxe Hezkuntza Komunitateak bultzatuta, Labayen Arkitektura Estudioak egin zuen proiektua. Tolosako Udalak emandako Santa Luziako lurzoru batean eraikiko du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak.

Eguzkiaren energiaren baliatze sistemak —kristalezko galeria, panel termikoak, fotoboltaikoak...—, *agua viva* moduko estalkia, deskarga bikoitzeko zisterna, iturri tenporizatuak, kontsumo urriko argiak, kontsumo gutxiko igogailua, isolamendu termikoa hormetan, zoru erradiazatzailea dira eraikinaren ezaugarrien zerrenda luzean auki daitezkeen hainbat. «Eraikina bera ere ikasgai izango da», esan zuten atzo.

2-6 urteko haurrak hartuko ditu eraikin berriak. Samaniegon egongo diren 30 talde ingurutik, 13 izango dira bertan, 45 irakasleekin eta beste 5 langileekin batera. ◀

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldekohitza.info

HITZA guztietan prezio berean

MENDIA ▶

Eguraldi onaren zain da Edurne Pasaban Pakistango Nanga Parbat mendiaren gailurrera igotzeko

Mendizale tolosarrak dio elurra egin duela azken aste osoan, eta urduri jartzen duela horrek

I. ETXEBESTE

«Luze joan zaizkigu egunok kanpaleku nagusian, baina, behintzat, leku atseginetan gaude: ur isuriak nonahi, dena berde-berde eta lorez josita. Zaldiak eta oiloak ere badabil-tza, eta tarteka marmotaren baten hotsa entzuten dugu. Musikaren soina etegabekoa da, eta salsa irakasten ari zaigu Ivan, 4.200 metrora. Umorea badaukagu, bederen! Zerbaiten beharra izango dugu, egur-aldiak ez baitigu askorik laguntzen. Euri asko ari du he-men, kanpaleku nagusian, eta, jakina, goian elurra da hori. Ostiralerako —joan den aste-koaz— aldaketa iragarri dute, baina horretan gaude aspaldi honetan, eta eguraldia ez da al-

datzen». Edurne Pasaban mendizale tolosarrak uztailaren 5ean bere webgunean idatzita-ko hitzak dira horiek. Etsi-etsian idatzitakoak ere, elurra dela-eta Pakistango Nanga Parbat mendiaren (8.125 m.) gailurrera igotzeko saiakera egitea ezinezko zaiolako.

Urduritzen ere hasi dela ai-tortu du tolosarrak, aste osoan ez duelako elurak etenik izan. «Bigarren eta hirugarren kan-palekuak jarrita dauzkagu, baina ez dakigu nola aurkituko ditugun botatzen ari den elur-pilaren ondoren. Girona behar bezala moldatuta egon arren, igotzen hasteko eta saiaketa bat egiteko irrikitan gaude de-nok».

Al filo de lo imposible tele-bista saioko espedizioan joan

da Pasaban Himalayara, Nanga Parbat mendiaren gailurra jo-tzeko asmoarekin. Jakin badaki gogorra izango dela helburua lortzea, baina eguraldia lagun izatekotan «gailurrera igotzeko aukerak ikusten» dituela dio. Zortzigarren zortzimilakoa li-tzateke mendizale tolosarra-rentzat. Elurra dela-eta atzera-tu egin dira espedizioak hasie-ra batean jarritako datak, bai-na oraindik ere garaiz dira au-rreara egiteko, gailurra igotzea ostiral honetarako aurreikus-ten zutelako. Helburu hori lor-tuz gero beste zortzimilako ba-ten bila abiatuko dira: Broad Peak (8.046m.), Karakorum-en. Eguraldi kaskarra omen dago han ere, eta Pasabanek ez dio oso baikor begiratzen gailur-hori igotzeko bideari. «Oso

argi daukagu Nanga Parbat-era igotzeko etorri garela, eta lehendabizi horretan ahalegin-duko gara; gero gerokoak». Zai-la izango da, elurtearen ostean berriz ere zabaldu beharko di-tuztelako gailurrera bidean le-henago irekitako arrastoak.

Animoak, «laguntza handia»

«Animoak emateko mezu mor-doa jaso dut posta elektronikoki bidez, eta laguntza handia dira; ezin diet, ordea, denei eran-tzun, teknikoki oso konplikatu-a da eta. Hori bai, lerro hauen bi-dez besarkada handi bat bidali nahi dizuet eta eskerrak eman egun hauetan animoak emate-agatik. Besarkada bat». Horixe idatzi berri du Edurne Pasaba-nek herritarrentzat.

FUTBOLA ▶

Iker Gabarain tolosarra fitxatu du Real Union-ek

Bizkaiko Amurrión jokatu du azken lau denboraldietan, eta aurretik Alaves B-n

I. ETXEBESTE

Real Unionek Iker Gabarain futbolari tolosarra fitxatu du. Bera da Irungo 2. B mailako futbol taldeak denboraldi berrirako fitxatu duen lehen jokalaria. 28 urte ditu, eta bi denboraldirako sinatu du hi-zarmena Irungo taldeare-kin, hirutara zabaltzeko au-kerarekin.

Amurrio futbol taldean, 2. B mailan, ari zen jokatzen az-ken lau denboraldietan, eta aurretik Alaves B taldean jar-dun zuen Gabarainek. 1,72 m. neurtzen du jokalaria tolo-sarrak, eta 70 kilo pisatzen ditu futbolari tolosarrak.

TURISMOA ▶

Tolosa eta Ibarra bateratuta, turismoko esku plano berrian

Tolosaldea Tour-ek bi herrien inguruko informazio interesgarriena bildu du bertan

IRATXE ETXEBESTE

«Tolosaldea Tour-ek bi herri elkarrekin azaltzen dituen es-ku planorik osatuena argitara-tu berri du lehenengoz eskual-dean». Tolosa eta Ibarra he-rriak bateratuta agertzen dira plano horretan, eta eskualdeko turismo bulegoko arduradu-nen hitzetan, «azken urte edo denboraldi honetan Tolosan eta Ibarra sortu diren kale nahiz auzo berriak ere biltzen dira bertan»; baita denbora gutxi barru abian jarriko dire-nak ere: Tolosako kiroldegi be-rria eta Ibarraldeko Apatte-erreko indutrigunea, esate-arako.

«Esku planoan, gainera, ber-tako informaziorik egunera-tuena aurkituko duzue: merka-taritza gune garrantzitsuena; gastronomia produktuen azal-penak; jatetxeen, gozotegien eta sagardotegien zerrenda; urtean zehar ospatzen diren ekitaldi interesgarrienak; osta-tuak; Inauteriak; Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia; Zumardi



Tolosa eta Ibarra bateratuta daude esku plano berri horretan. HITZA

ingurumen jardunaldiak; Na-zioarteko Abesbatzen Lehiaketa; San Joan jaiak; kultur ekital-diak; herri kirolak eta eskul-dantzak, adibidez».

Kultur eta arte arloei ere ga-rantzia eman nahi izan diete

proiektuaren sustatzaileek esku planoan, eta Tolosan eta Ibarra dauden eraikuntza zi-bilak eta erlijiosoak eta eskul-tura ikusgarrienak adierazi di-tuzte, beren kokapen zehatza-rekin. Xaxu gozogintza mu-

seoaren, artisauen, eta, nola ez, autoz, trenaz edo autobusez bi herrietara etortzeko bideen eta telefono interesgarrien be-rreri ere ematen du esku plano berriak.

Tolosaldea Tour-ek Tolosako Santa Maria plazan duen egoi-tzan aurkitu ahal izango duzu Tolosa eta Ibarra biltzen dituen esku plano berria. Bulego ho-rretan, gainera, erraztasun guztiak emango dizkizute os-tatuen erreserbak, bisita gida-tuak, herri ibilbideak eta men-di ibilbideak egiteko eta «urte-an zehar antolatzen diren eki-taldietara eta jardueretara joa-teko». Tolosaldea Tour-en esa-netan, esku plano horren la-guntzarekin, «Tolosan eta Iba-rrian egiten duzun egonal-diaren oroimen atsegina era-mango duzu».

Ekimen horren edo beste ba-tzuren gainera informazio osa-tuagoa nahi duenak badu au-kerak Tolosaldea Tour-en, es-kualdeko turismo bulegoaren web orrialdera sartzeko: www.tolosaldea.net.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

► **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
► **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

► **Asteasu.** Medikua: 692423

► **Baliarrain.** Medikua: 889003

► **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

► **Bidegoian.** Medikua: 681134

► **Ibarralde.** Osasun etxea:

672411

► **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

► **Irura.** Osasun zentroa: 690720

► **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

► **Orendain.** Medikua: 655595

► **Orexa.** Medikua: 682228

► **Tolosa.**

► Anbulatorioa, larriald: 461111

► San Esteban: 006800

► Gernikako arbola: 006900

► Amaroako dispen.: 672637

► Asunzio klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

► **DYA:** 672536

► **Gurutze Gorria:** 674888

► **Villabona.** Anbulat.: 006970

► **Zizurkil.** Aitzondo zerb.: 693930

Garraioak.

► Renfe: 902 24 02 02

► Donostiako autobusa: 361740

► Tolosaldea bus: 650621

► Leitzaizan autob.: 948 221015

► **Taxia:** 670420

► **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besterik.

► **Ertzaintza:** 538820

► **Tolosa-Udaltzaingoa:** 675858

► **Tolargi:** 650016

► **Iurramendi egoitza:** 670325

► **Tolosa gasa:** 675320

ASTEASU ▶ SANTAMAÑAK

Kros lasterketak eta mus txapelketak eman die hasiera jaiei

Patxi Urizar eta Aintzane Argazek irabazi zuten Kros igoera; musean Xabino Roteta eta Pello Izagirre bikotea irabazle



Santamakao V. Kros Igoeran lehenengo sailkatuak gizonetako eta emakumezkoetan. XABIER UBEDA/AIURRI

IMANOL GARCIA

Santa Marina auzoko Santamania jaiei hasiera eman zieten herenegun egindako ekitaldiekin. Santamania V. Kros Igoera eta X. Mus Txapelketa egin zituzten. Asteburu honetan izango dira jaietako ekitaldi nagusienak, ostiralean hasi txupinazoarekin eta astelehenean Tranpazuloren jaitziera egin arte.

Eskualdeko hainbat korrikalari aritu ziren lehen kros lasterketan. 110 lasterkerik eman zuten izena, orain arteko partehartze errekorra hautsiz. Antolatzaileek azpimarratzen dute emakumezkoetan 20 partehartzaile izan zirela. Urterogero eta jende gehiago animatzen da parte hartzera mendi

lasterketa horretan. Gizonetakoetan Patxi Urizarrek irabazi zuen eta lehen asteasuarra Pello Izagirre izan zen. Emakumezkoetan Aintzane Argazek irabazi zuen lehena eta Isabel Dumall lehen herritarra. Argazek errekor berri egin zuen emakumezkoetan.

Pello Izagirre, antolatzaile lanetan ez ezik, korrikan ere parte hartzen du. Hamar lehenengotan sartu da Santamania kros guztietan eta aurtien ere bosgarren amaitu du. «Gustura nago egindakoarekin», azaltzen du mendi lasterketak gogoko dituen asteasuar honek. Santamania igoerak suposatzen duen erritmo aldaketa nabarmentzen du: «Beste lasterketan ez bezala, hemen ez zara hasten mendian korrikan.

Hasieran, Asteasuko kaleetatik aritzen gara korrikan eta gero Santamania igo behar du eta horrek erritmo aldaketa handia suposatzen du».

Isabel Dumall ere gustura zegoen egindako lasterketarekin. «Sentsazio onak izan ditut», azaldu du, eta lasterketan bizi den giroa azpimarratu du. Dumallek lasterketa prestatzeko erabili du, izan ere, irailan beteraneoen Mundu Txapelketan maratoi proban ariko da lehia-tzen.

Bestalde, mus txapelketa Xabino Rotetak eta Pello Izagirrek osatutako bikoteak irabazi zuen, finalean Jose Antonio Kortajarena eta Jesus Mari Arizetari gailendu ostean. Guztira hemeretzi bikotek hartu zuten parte.

EGITARAUA ▶

UZTAILAK 15, OSTIRALA

20:00. Txupinazoa eta Tranpazulo igoera.
21:00. Herri afaria.
23:00. Jose Luis Laja eta Alabier trikitilariak.
Goizaldera. Txokolatada.

UZTAILAK 16, LARUNBATA

17:00. Haur jolasak.
18:30. V. Nazioarteko Toka Txapelketa.
23:00. Izer eta Luxurdixo trikitilariak goizaldera arte.
Goizaldera. Txokolatada.

UZTAILAK 17, IGANDEA

10:00. Andazarrateko XXI. Igoera (federatu gabeko berrindularentzat).
11:00. Meza nagusia.
Ondoren: aizkolariak, harri-jasotzaileak, Murua eta Irazu bertsolariak eta Laja Ziolar eta Eguren trikitilariak.
17:30. V. Zaldi Lasterketa.
Gauetan. Laja, Ziolar eta Eguren trikitilariak.

UZTAILAK 18, ASTELEHENA

11:15. Meza nagusia.
Ondoren hamaiketakoak.
13:00. Herri kirolak bailarakoan artean. Ondoren Kupela taldea eta Mañukorta eta Zeberio bertsolariak.
17:30. Kalejira.
Gauetan. Kupela Taldea.
Gauerdia. Tranpazulo jaitziera.

SAILKAPENAK ▶

Santamania V. Kros Igoerako sailkapenak.

GIZONEZKOAK

1. Patxi Urizar	27'36"
2. Cipri Burcio	28'08"
3. Luis M. Urizar	28'34"
4. Hasan Ait Chaou	29'11"
5. Pello Izagirre	29'18"

EMAKUMEZKOAK

1. Aintzane Argaz	33'21"
2. Nerea Amilibia	34'48"
3. Izaskun Zubeldia	36'25"
4. Isabel Dumall	36'47"
5. M. Carmen Garcia	39'06"

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.: 616 93 17 88



Asteasu. Txalet eraiki berria. Ezinhobea. Lur saila, garajea eta trastelekua. Etxesagasti 943 69 68 56.

Lizartza. Egongela, sukaldea, hiru logela eta bi bainugela dituen etxebizitza. Berritua. Kanpoaldea. 34m2ko garajea. Etxesagasti 943 69 68 56.

Tolosa. Etxebizitza eraiki berria. Bi logela, terrazekin. Txokoa, garajea eta trastelekua.

Villabona. 72 m2. Egongela, sukaldea, 2 logela eta bainugela. Eraberritua. Trasteleku handia. Etxesagasti 943 69 68 56.

Villabona. Erdialdean. Bi logela eta trastelekua dituen etxebizitza. Berritzeko. 32.000.000 pezeta. Etxesagasti 943 69 68 56.

Villabona. Taberna salgai. Informa zaitez! Etxesagasti 943 69 68 56.
Zizurkil. Eraikuntza berria. 113 m2-ko etxebizitza paregabea.

Trastelekuarekin. Etxesagasti 943 69 68 56.

Zizurkil. Hiru logelako etxebizitza. Erdi eraberritua. Igogailua eta trastelekua. 36.000.000 pezeta. Etxesagasti 943 69 68 56.

Eskaera handia dela eta, etxebizitzak, bakarkako etbeak, baserriak eta nekazal eta hirigintzarako lursailak behar dira, alokairuan edo salmantan. Itxaron zerrrenda dugu.

ZIZURKIL ▶

Erasun eta Goikoetxea Euskadiko finalerdietara

Zizurkildarra nagusitu zen Azkarateko saioan eta gazteluarra bigarrena izan zen

ERREDAKZIOA

Juan Manuel Erasun zizurkildarrak eta Andoni Goikoetxea gazteluarra lortu zuten Euskal Herriko Txapelketako finalerdietarako txartela. Azkaraten (Nafarroa) jokatu zen kanporaketa eta aurrteik faboritu ziren sailkatu ziren.

Jende ugari izan zen saioa jarraitzen, batez ere Erasun indarrez nola zebilen ikusteko. Izan ere, zizurkildarra ikusmin handia sortu duen apustua jokatu du Joxemari Olasagastiren aurka. Hitzordua Andoaingo Garate baserriko lursailetan izango da, datorren igandean. Aizkoran eta segan arituko dira biak: 20 kanaerdiko moztu beharko dituzte eta gero segan jarraitu guztira bi orduko lana bete arte.

Erasunek nagusitasunez burutu zuen bere lana eta ordu erdian 1.180 kilo ebaki zituen, 20 kiloko zigorra jaso eta gero. Goikoetxea gazteluarra maila ona eman zuen eta 120 kiloko zigorra jaso arren, gutxigatik baina bigarren postua lortu zuen 903 kilorekin. Horrela bere helburua bete zuen, finalerdietarako sailkatzea. Atzetik Marifalena nafarra sailkatu zen gazteluarrarengatik 8,5 kilotara, epaileek 40 kilorekin zigortu eta gero.

Erasun gustura zegoen egindako lanarekin, baina tentuz ibili zen bigarren saioan: «Zikin xamarra zegoen eta zigorrekin kontuz ibili behar zen». Bestalde, igandeko apustuari begira azkenean aikora eta sega txapelketan fin aritu da zizurkildarra. «Orain arte egin ez dugunik egiteko betarik ez dago», azaldu du Erasunek.

Azkarateko kanporaketaren ondoren, finalerdietako saioak horrela gelditu dira: Mitxelena, Zuriarrain amasarra, Erasun zizurkildarra eta Goioaga arituko dira A multzoan, eta Aranalde, Ormaetxea, Orendaindarra, Goikoetxea gazteluarra eta Goenaga, beriz, B multzoan lehiatuko dira.

ORENDAIN ▶ HIPIKA

Garmendia jaun eta jabe Nazioarteko Jauzien Txapelketan

DV saria, Kirolen Kontseilu Nagusiko saria, GP Iberia Airelineako saria eta Kutxa sariak eskuratu ditu zaldunak

NOELIA LATABURU

Pasa den larunbatean Donostiako hipikako Nazioarteko Jauzien Txapelketa izan da Loiolako hikipa elkartean. Bada, bertan arrakasta handia eskuratu du Jesus Garmendia orendaindarrak. Espainiako txapelduna denak, eta duela gutxi Burgoseko (Espainia) GPa irabazitakoak, ostiralean lehen DV saria irabazi zuen eta larunbatean Kirol Kontseilu Nagusiko saria eta GP Iberia Airelineako saria eskuratu zituen, azken hau txapelketako proba zailena delarik. Igandean, azkenik, Kutxako binakako sarian lehen postua lortu zuen Orendaingoak. Francisco Rodríguez Ronderos Asturiaseko (Espainia) zaldunarekin batera aritu zen, *Epi de Colomby* zaldiaren gainean, Rodriguezek *Lolita* zaldia izan zuelarik.

Txapelketa «bizia» izan da eta zaldun orendaindarrak aurkari gogorak izan ditu aurrez aurre, Luis Álvarez Cervera, Ricardo Jurado, Miguel Honorubia, Antonio Montánchez eta Graham Lovegrove, besteak beste. Maila handiko zaldunak maila handiko saltuak eskaintzeko. Hauxe bera iragartzen zuten antolatzaileek eta ez zuten hutsik egin, izan ere era-



Espainiako txapelketa ere eskuratu du Jesus Garmendiak. HITZA

kustaldi bikainaz gozatzeko aukera izan zuen hiru egunetan zehar Loiolako instalakuntzera hurbildu den jende mordoak.

Garmendiak «zaila» ikusten zuen txapelketa hasieran horren emaitza onak eskuratzea baina, bere lau dominak bereganatu ostean, «lanarekin eroso eta gustura» azaldu zen. Gogotsu dabil orendaindarra denboraldiarekin aurrera jarraitzeko eta garaipen hauek «indarrak eman dizkiote».

SARIAK ▶

KIROL KONTSEILU NAGUSIKO SARIA

Zalduna	Denbora
1. Jesus Garmendia	42.51
2. Antonio Montanchaz	43.46
3. Graham Lovegrove	44.01

GP IBERIA

Zalduna	Puntuak
1. Jesus Garmendia	45.54
2. Jerome Gachignard	46.08
3. Alex Rident	48.53

AMEZKETA ▶ PILOTA

XVI. Joxean Tolosa Txapelketako neurketak

Ostirala, larunbata eta igandean jokatu dituzte Amezketa pilotalekuan

N. LATABURU

Asteburu honetan ere jokatu dituzte Amezketa pilotalekuan XVI. Joxean Tolosa Txapelketako jardunaldi berriko norgehiagokak. Guztira hiru mailatako hamabi partida jokatu zituzten, zazpi kadeteetan, lau gazteetan eta beste bat nagusietan.

Hauexek izan dira emaitzak: ostiralean kadeteetan, Ariznabarreta (Zegama) 10-Lezaun (Mendaro) 18 eta Zinkunegi (Usurbil) 18- Oliveira (Lazkao) 06; eta gazteetan, Martinez (Lizartza) 18-Andueza (Azkoitia) 13.

Larunbateko goizeko neurketetan, kadete mailan, Artola (Amezketan) 17-Zelaia (Getaia) 18 eta Errazkin (Saiaz) 10-Juanena (Txaruta) 18; gazteetan, berriz, Zubillaga (Andoain) 18-Goiketxea (Txapagain) 11. Arratsaldean, kadeteetan, Iribar (Antiguo) 08- Sarasola (Añorga) 18; gazteetan, Epelde (Azkoitia) 12- Telleria (Saiaz) 18; nagusietan Agirrezabala 10- Martinez (Lizartza) 18. Igandean, azkenik, Albisu (Ataun) 18- Jauregi (Azkarate) 16; Esnaola (Usurbil) 18- Azkune (Durango) 18 kadeteetan eta Insausti 03- Iriarte (Leiza) 18 gazteetan.

ALEGIA ▶ GIZARTEA

Heriotz zigorra berretsi dute Larrañagarentzat

ERREDAKZIOA

Filipinetako Auzitegi Gorenak Paco Larrañaga gazte alegiarren aurkako heriotz zigorra berretsi du, bi neska bahitu, bortxatu eta erahil izana leporatuta. Familiartekoez eta senideez berria jaso dute pasa den astean Filipinetatik etorritako Auzitegi Gorenako lau magistratuk Zumarragara eginiko bisitan.

Larrañagaren abokatuak,

Javier Viadak, adierazi duenez, bi balizko aukera gertatu dira alegiarrentzat. Batetik, Filipinetako lehendakaria Gloria Arroyoren errukia jasotzea edo Nazioarteko Auzitegi batek parte hartzea. Lehen aukera «ezinezkotzat» jo du abokatuak, izan ere errukia lortzeko salatuak delitua onartu beharko luke eta «Pako ez du inolaz ere bete ez duen delitu bat bere gain hartuko».

Guztia hutsaren truke

Orain 0€* -ren truke

eskuratu LG 2300, Motorola V547 edo Samsung X640 bat.

Eta gainera...

Hitz egin doan abendura arte**



San Francisco, 19
Tolosa
Tel.: 943698126

* Leihotzen eta Hautaketaren bezeroentzako, ondoren ordaintzekotik aurretik ordaintzekora pasatutako bezeroentzako eta etxeko telefonia mugikorrek operadore nazional batietik etorritako alta eman duten bezeroentzako mugikorren PSPa, betiere 2005/08/31 baino lehen kontratatzen badu ondoren ordaintzeko etxeko zerbitzua 6 €ko kontsumo minimoarekin, eta 18 hilabetez irauteko konpromisoa hartzen badu. Muga: 7.000 unitate.
** Sustapen honen 2005/08/31ra arte balio du. Estatuko delak Euskalte/Aménaren mugikorretara 0 €/min-ren truke, 2005eko abenduaren 23ra arte, Alta-kuota: 6 €, Fakturazio-zifra bakoitzeko muga: 2.000 minutu. Delaren ezartze-kostua sartu gabe. Sustapen hau ez da bateragarria beste sustapen hauekin: Nire Gogokoena, 5 a 5 zerbitzua, 3x2 kontratua, Duo Kontratu Libre eta 3 zent./min tarifarekin deritzeko sustapenak (sustapen horiek behin betiko galdutako irateke). Galdetu sustapen honen baldintzei buruzko informazioa saltokietan edo 900 840 840 telefono-zenbakian.

Euskaltel - en Banatzaile Ofiziala

BERASTEGI ▶

'Aidanen' aldizkariaren azken ukituak

Pasa den urtean bezala, laster izango da berastegiaren eskuartearen *Aidanen* Berastegi herri aldizkariaren bigarren alea, izan ere, San Lorenzo jaien egitarauarekin batera espero dute banatzea. Herriko albiste zahar eta berriak, historia, kultur eta kirol arloko proiektuak, herritarrei buruzko datu interesarriak eta abar biltzen dituen aldizkaria Aldin kultur elkar-teen proiektua da, eta herritarren laguntza izaten dute aurrera eraman ahal izateko. Azken ukituak ematen ari dira aldizkariari, eta inprimategiko lanak soilik geratzen zaizkiola esan daiteke, egun batzuren buruan irakurri ahalko dute beraz herritarrek.

BIDEGOIAN ▶

Etzi izango tutorearen bisita KZguneak

Etzi, osteguna, Bidegoiango KZguneak tutorearen bisita izango du 16:00etatik 20:00-etara. Hurrengo bisitaldia, berriz uztailaren 21ean egingo ordu berean.

ANOETA ▶

Hitzaldia Gerra Zibilari buruz gaur 19:00etan

Gaur, 19:00etan, Anoetako Gaztetxean hitzaldia antolatu du Anoetako Gazte Asanbladak uztailaren egingo dituzten ekitaldien baitan. Espainiako Gerra Zibilaren inguruko hitzaldia izango da gaur entzungai eta Mikel Errazkinnek eskainiko du. Bestalde, bihar *Los caballeros de la mesa cuadrada* bideo emanaldia izango da 22:30ean.

BELAUNTZA ▶ POLITIKA

Ez direla Basasororen eskubideak urratu dio Konstituzionalak

Helegitea jarri zuen bere eskubideak urratzen zirela salatuz pasa den urteko irailean onartu zen mozioan

ERREDAKZIOA

Pasa den urteko irailaren 16ean Edurne Arbelegi Belauntzako alkateak batzar berezira agertzeko deialdia luzatu zien herritarrei. Batzar horretan mozio hau onartu zen «azken aldiari jazotako gertaeren» ondorio bezala: «Belauntzako Udalak azken aldiari gertatutakoak gaitzesten ditu. Erabat arbuia garriak diren gertaera hauen arduradun nagusiak Iñaki Basasoro, Jose Maria Jauregi eta Belauntzako

Sustraiak dela ere badaki... Behin batzar berezian onartzen denean, idatzi bat prestatuko da herritarrek gertatutakoaren berri izan dezaten, eta hedabide guztietara ere bidaliko da, Belauntzako Udalak bezala sinatuta».

Hori dela eta, Iñaki Basasorok epaitegietara jo zuen eta 601.012,10 euro eskatu zituen sortutako moralezko kalte ordainengatik. Pasa den uztailaren 6a bitarte, Auzitegi Konstituzionalak onartu zen mozioaren edukia aztertu du Basa-

sororen eskubideak urratzen ziren ala ez erabakitzeko. Prozedura luzearen ondorenean, eta Basasorok Belauntzan kargu publiko bat izan duela kontuan hartuta, mozio hartan onartutakoa interes orokorra zuen kritika publiko bat zela eta bertako edukia ez dela iraingarria adierazi zuen pasa zen asteazkenean. Beraz, Auzitegi Konstituzionalak ez du aintzat hartzen Basasorok jarritako helegitea batzar orokorreko deialdiaren eta ondoren onartutako mozioaren inguruan.

BELAUNTZA ▶ GIZARTEA



Ekitaldi ugariz gozatuko dute herriko txikiek

I.Terradillos ▶ Belauntzako Udalak antolatutako ludoteka abian da. Bertan 16 gaztetxok eman dute izena eta hainbat ekitaldi burutuko dituzte uztailaren zehar. Bihar Txolarre irratia bisitatuko dute; horretarako 9:45ean aterako dira eta

13:00ak aldera bueltatuko dira. Hilaren 15ean 11:00etan Irrintzi taldearen *Bakartxoren zapati-lak* txotxongilo emanaldia izango da. 20ean Ulibarri Ganboako lakura irteera, eta 26ean Mahala baserrira bisita egingo dute. HITZA

IBARRA ▶



Annaluise eta Anton. IGA

'Annaluise eta Anton' filma gaur udako zineman

22:00etatik aurrera izango da ikusgai euskaraz gaztetxoiei zuzenduriko filma

I.TERRADILLOS

Gau giro zine klubaren barnean, gaur 22:00etan hasita udaletxe ondoko pilotalekuan *Annaluise eta Anton* filma izango da ikusgai. Euskaraz ikusi ahaliko den filmaren zuzendaria Caroline Link da eta 114 minutuko iraupena du. Pelikula hau, Erich Kastneren eleberrian oinarritua dago.

Istoria, berriz, honakoa izango da: nahiz eta jatorri ezberdinekoak izan 10 urte dituen Annaluise eta 11 urteko Anton lagun minak dira. Anton, mutiko behartsua da, gaixorik dagoen amarekin bizi da eta bizimodua aurrera ateratzeko izozki denda batean egiten du lan. Puntu izen-goitia duen Annaluisek, bere adiskideari lagundu nahi dio, baina nahiz eta guraso aberatsak izan, ez diote ez arreta eta ez dirurik ematen. Horrela, Annaluise gauez tren geltokira joango da abestu eta dirua lortzeko.

UDA HONETAN JANTZI EZAZU
HITZAREN KAMISETA

SALGAI HITZAREN egoitzan eta
OSKI GAZTEA
Emeterio Arrese, 5 • Tel.: 943 65 56 21
TOLOSA

HERRI KIROLAK ▶

Nafarroako txapela Perurenak irabazi du beste behin ere

Leitzar kirolariak lanean ikusteko aukera franko bada
sanferminetan, Iruñeko Foruen Enparantzako ekitaldietan

JAIONE ASTIBIA

Iruñeko Foruen Enparantza, sanferminetako herri kirolen ekitaldien txokoa izaten da urtero. Nafarroako hainbat txapelketa egiteko baliatzen dute aukera eta baita, nola ez, erakustaldiak egiteko ere. Horrela, batean ez bada, bestean, ikusle modura ez ezik, kirolari eta protagonista bezala leitzarrik ikustea ez da arraroa ere.

Eta horrelaxe, ostiralean bertan jokatu zen Nafarroako Harri-jasotzaileen Txapelketa, besteak beste, bi leitzarrek parte hartu zutelarik, Josetxo Urrutiak eta Iñaki Perurenak. Eta honetxek irabazi zuen gainera txapela, aurtengoarekin, bigarren aldiz: Iñaki Perurenak jantzi zuen Nafarroako Txapela. Perurenak orpoz-orpo ibili zuen Larretxea, saio guztietan, baina azkenean leitzarrak, guztira, kilo gehiago bizkarreratu zituen eta irabaztun atera zen: 125 kiloko zilindroarekin, 22na altxaldi; 112,5 kiloko zilindroarekin, 15 eta 13, leitzarraren alde, hain zuzen ere altxaldi

pare honek eman zion garaipena Perurenari, kilo kontura; eta 100 kiloko bola, 16 eta 18, Larretxearen alde. Azken une arte, beraz elkarri segian ibili arren, azkenik, nahiz eta 53na altxaldi eman, Perurenak 25 kilo gehiago jaso zituen eta bigarren aldiz jabetu zen Nafarroako harri-jasotze txapelaz.

Bi hauen ondo-ondoan ibili zen, bestalde, Josetxo Urrutia ere, erakustaldi on askoa eginez. Gazteak 20, 12 eta 14 jasoaldi egin zituen, hurrenez hurren, eta hirugarren lekua lortu zuen, bost parte-hartzailetatik.

Biharamonean, berriz, txapelketatik kanpo baina, Mikel Saralegi ere han zen harri-jasotze erakustaldi egiten, sanferminetako azken egunean, etzi, Perurena aita-semeek, Iñaki eta Inaxiok, ere eginen duten moduan. Beraz, oraindik garaiz dabil, hauek lanean ikusi zale dena.

Bihar, berriz, aizkolarien txanda izanen da. Aurtien iaz ez bezala, burutu diren aizkolaritxapelketetan ez da leitzarrik, Saralegi gazteen mailako adi-



Rekondo erakustaldi batean. J. A.

netik gorakoa baita eta Rekondo, 2. mailan dago iada, eta 3. mailako txapelketa da sanferminetan jokatu dukena.

Hala ere, Rekondo bera lanean ikusteko aukera izanen da bihar bertan ikuskizun izanen den herri kirol nahaste erakustaldian. Bi talde ariko dira, hiru lanetan, aizkorian, sorskor biltzen eta laisterka: aizkorian Jon Rekondo leitzarra dela, Iñigo Lasaga ariko da gainerakoe-tan; beste taldean, Jon Telle-txea aizkorian eta Fernando Etxegarai ariko dira.

PILOTA ▶

Erreterian finalaurrekoa jokatuko dute kadeteek

Aurrerako pilotari gazteek gaur dute
finalerako txartela eskuratzeko aukera

J. ASTIBIA

Beste hainbat pilota txapelketetan bezala, Erreteriarakoan ere parte hartzen ari dira Aurrerako pilotari taldeko jokalariek, maila edo adin desberdinetan egiten ere.

Horrela, esate baterako kadete mailan finalaurrekoetan ari dira jada, eta horreraino aialtuta daude, taldearen ordezkariak: Aritz Sagastibel-tzak eta Xabier Alustizak osatutako bikotea da hori eta gaur bertan dute jokatzeko finalerako txartela. Ropon eta Leunda, Amezketako ordezkariak izanen dituzte aurrez-aurre, 18:30ean hasiko den jaialdiko 2. partiduan.

Benjaminen mailan, lehen-go astean finalaurrekoa jokatu zutenak, Jon Iparragirre eta Mikel Sagastibel-tza Egues izan ziren. Hauek Ugalde eta Zapirainen aurrean, 18 eta 10 galdu zuten, ordea, finalera igarotzerik izan gabe.

Eta txapelketa honetatik atera gabe, bihar beste jaialdi bat eginen dute Erreteriarako pilotalekuan bertan, noski, eta 18:30etik aurrera ere, ohikoa duten moduan, kasu horretan gazteen eta afizionatuen mailan. Horrela, gazteenean, NARBarte aurrean duela, Mikel

Iriarte leitzarra ariko da Aurreraren izenean, Ojuel-Nuñez bikotearen aurka, jaialdiko 2. partiduan; eta afizionatutan, berriz, eta 3. partiduan, Mikel Olazabal aresoraria izanen da ordezkari, Jose Luis Tabar atzean lagun duela, Erroizenearen eta Argoteren aurka jokatzuz. Hauek, bai gazteen mailakoak, nahiz afizionatutakoak, oraindik ligaska jokatzeko ari direla eman zuten aditza taldearen arduradunek, atzokoan.

Antiguakoan ere

Ligaxka jokatzeko ari direnak, bestalde, Antiguako Pilota Txapelketako parte-hartzaileak dira, bi partidutara, zehazki. Halaxe eman zuten ezagutzera pilota eskolatik, hor ere Aurrerako ordezkariak ari omen dira eta parte hartzen: «Bak irabazi behar dira, hurrengo fasera igarotzeko», argitu nahi izan zuten gainera.

Horrela, Donostiako auzo horretan egiten den ospe handitxoko txapelketa horretan, besteak beste, Mikel Iriarte ere ari da, kasu honetan, aurreko koadroetako lagun Andreu duela. Etzi dute lehen partidua, Galtartza eta Aldaparen aurka.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- beheak
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-mail: ennio@inmoennio.com
www.inmoennio.com

Abaltzisketa. Eraikuntza berriko etxe abikiak, terraza eta lursailarekin. Bista ederrak Txindokira eta bailarara.

Altzo. Etxe bifamiliar ederra salgai, ikusteko modukoa, bista ederrak.

Bidanía. Eraikuntza nahiko berriko etxe bifamiliarra, oso egoera onean.

Errazkin (Nafarroa). Berritzeko dagoen borda salgai. 140 m²-ko bi solairu eta 1.200 m²-ko lursaila.
Ibarra. Eraikuntza berriko 2 logelako etxebizitza salgai, garajea aukeran.

Ibarra. Euskal Herria kalearen hasieran. 4 logela, sukaldea, egongela eta bainugela.

Ibarra. Plaza inguruan garajea salgai.

Ibarra. San Inazio auzoan. 3 logela, sukalde-egongela eta bainugela. Dena kanpoaldera, oso eguzkitsua. Estreinatzeko !!!

Ikaztegieta. 6 etxe abikiaren eraikuntza berria. Informazio pertsonala.

Ikaztegieta. Etxe abikiak salgai. Lorategi eguzkitsuekin.

Irura. Borda ikusgarria, ikusteko modukoa !!!

Pabilioia, Asteasu. 1.050 m² + 250 m²-ko entreplanta, egokitua: jangela, sukalde, bulego, komunak ... oso egoera onean, sarrera onak trailerrentzako, zama-lanetarako kaiarekin.

Tolosaldea. Eraikuntza berriko etxe bifamiliar zoragarria. Ikusgarria !!!

Tolosa. Arostegieta. Ganbara, bizitzaren jartzeko modukoa. 111.790 euro.

Tolosa. Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai 155.060 eurotik aurrera.

Tolosa. Azkeneko pisua guztiz berritua. Terrazarekin. 208.430 euro. Ikustekoa !!!

Tolosa. Korreo. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berokuntza. Sartzeko moduan. 168.285 euro.

Tolosa. Alde Zaharra. 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela dituen etxe polita erabat berritua.

Tolosa. Benta Aundi. Duplex polita salgai su baju eta guzti. Ikustekoa !!!

Tolosa. Berazubi. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Guztiz berritua.

Tolosa. Amaro azoan 3 logelako etxebizitza salgai igogailuarekin.

Tolosa. Zezen-plazan. 87 m²-ko

etxebizitza berritzeko, igogailuarekin.

Tolosa. Erdialdean. 130 m²-ko etxebizitza salgai. 4 logela (bat bulego bezala egokitua). Estreinatzeko, guztiz berritua izan ondoren.

Tolosa. Foruen etorbidean guztiz berritutako etxebizitza salgai. Ikusteko modukoa !!!

Tolosa. Geltokialdea. Eraikuntza berria. 2 logela, egongela, sukaldea, bi bainugela, 2 terraza eta 2 lorategi. Behian: garajea, komuna eta txokoa.

Tolosa. Larramendi. 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Trasteleku ederra ganbaran.

Tolosa. Trinkete. 3 logela eta bi bainugela. Egongela ederra. Ezin hobeto !!!

Tolosa. Iurre. 3 logela eta 2 bainugela. Garajea aukeran. Egoera bikaina.

Tolosa. Ibai aldera eta hegoaldera. 4 logela, bi bainugela. Trasteleku eta garajea. Aukera paregabea !!!

Tolosa. Zumalakarregi ibiltokian, 101 eta 109 m²-ko bi etxebizitza bikain. Estreinatzeko, erabat berrituak izan

ondoren. Kalitate oso onak.

Igogailu eta berokuntzarekin !!!

Garajea aukeran.

Tolosa. San Frantzisko ibilbidean. 126m²-ko etxebizitza berritua garajearekin.

Tolosa. Erdialdean oso ondo kokatua dagoen taberna salgai.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Taberna alokairuan.

Tolosa. Araba etorbidea. Garajea alokairuan.

Txarama inguruan. 100 m²-ko etxebizitza terrazarekin, egongela su bajuarekin, terenoa eta garajearekin. Oso egoera onean.

Villabona. Larrea. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Eguzkitsua.

Villabona. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta terraza.

167.080 euro.

Villabona. Etxe-ondo. Pisua garajearekin. Pisua, 3 logela eta 2 bainugelaarekin. Garajea, 50 m²-koa, karabanentzat egokia.

Villabona. Kale Berria. 34 m²-ko garaje itxia salmentan.

HITZA, zorion agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA • Udaletzeko bulegoa - LEITZA
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!